

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Migel Irazusta Larrea*

*Andoain,  
Gipuzkoa  
(1930)*

Aurkibidea



## Biografia



Aita Asteasukoa zuen eta ama, berriz, Andoaingoa bertakoa. Berak bi urte besterik ez zituela hil zitzairen ama, eta aita amaren ahizpa batekin ezkondu zen. Lau senide izan ziren eta bera zaharrena zen denetan. Aitak, amak eta geroago bere amaordekoa izango zen izebak Inazio taberna erosi zuten eta batzokia jarri zuten bertan. Festa gutxi harrapatzen zituela zioen, baina txistua joaz Adarratik Xoxokara jaisten zirenekoak gogoan zituen. Laborde anaien lantokian aritu zen lanean 14 urterekin hasita, eta gerora igeltsero ibili zen. Andoainen bizi izan da beti.

## Zintak

### AND-076

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2011-01-12
- **Iraupena:** 41 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

### AND-077

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2011-01-12
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. Komuna ez eramateagatik ordaindu egin behar

- **Erref:** AND-076/003
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

**Laburpena:**

"Bar Ignacio" taberna jarri zuten gurasoek Andoainen. Eta, gerora, batzoki bihurtu zuten. Batzokia nolakoa zen gogoan du. Gerra garaian, batzokia hustera etorri ziren soldadu batzuk; eta, komuna eraman ez zezaten, gurasoek ordaindu egin behar izan zuten.

**2. Kultur ekintzak batzokitik kanpo**

- **Erref:** AND-076/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

**Laburpena:**

Gerra aurretik, batzokian zer giro egoten zen gogoan du. Ez zen kultur ekintzarik antolatzen; ekintza horiek udaletxearen eraikuntza batean egiten ziren. Eraikuntza hura nolakoa zen azaltzen du.

**3. Batzokiko giroa**

- **Erref:** AND-076/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:10:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

<p>Batzokian herriko jendea ibiltzen zen. Gerra pasa eta handik urte ugari pasatakoan, <em>Basarri</em> eta <em>Uztapide</em> Andoainera etortzen ziren Migelen gurasoen garaiko nazionalistekin elkartzera eta lagun-giroan egotera.</p>

**4. Bertsolaritzarako zaletasuna**

- **Erref:** AND-076/007
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

**Laburpena:**

<p>Migel bertsozalea izan da beti: Ota&ntilde;o, <em>Xenpelar</em> eta <em>Txirrita</em> gustuko izan ditu. Habanerak abesteko ohitura zeukaten lehen. Manuel Olaizola <em>Uztapide</em> bertsolari handia zela uste du. Bertso bat abesten du.</p>

## 5. Lehengo bertsolari onak

- **Erref:** AND-076/009
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:18:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

### Laburpena:

<p>Lehen bertsolari onak nolakoak ziren aipatzen du. Lehen bertsolariak tabernan aritzen ziren gehienbat. <em>Uztapide</em>k abestu zueneko bat gogoan du: oso saio polita izan zen hura.</p>

## 6. "Euskotarrak gera" abestia ikasteko gorabeherak

- **Erref:** AND-076/012
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

<p>Txistua jotzen zuten. Txistuko irakaslea karlista ote zen susmoa du, ez zien erakutsi nahi izan "Euskotarrak gera" abestia. Azkenean, baina, beren kabuz lortu zuten abesti hura ikastea. "Euskotarrak gera" abestia kantatzen du.</p>

## 7. Euskaraz hitz egitea debekatuta

- **Erref:** AND-076/013
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:23:47. **Bukatu:** 00:27:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

Abesti batzuk debekatuta zeuden Francoren garaian. Behin etxe inguruan jolasten zebilela, soldadu batek euskaraz hitz egitea debekatuta zegoela esan zion Migeli. La Sallen irakasle gehienek euskaraz jakin arren, baziren batzuek inoiz egingo ez zutenak.

## 8. Gerran Urnietara egin zuten alde

- **Erref:** AND-076/017
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:32:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)
- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ihes egin beharra](#)

**Laburpena:**

Gerra garaian, Migelen familiak Andoaindik alde egin zuen Urnietara, amaren anaia baten etxera. Hegazkinen bonbetatik nola babesten ziren kontaktzen du.

**9. Ondasunak eta bizia salbatzeko egin beharrekoa**

- **Erref:** AND-076/018
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:32:19. **Bukatu:** 00:36:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ondasunen galera](#)
- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Errepresioa](#)

**Laburpena:**

Andoainen hiru bonba bota zituztenean, non erori ziren aipatzen du. Beraiek orduan Urnietan zeuden, eta Andoaindik Joxe Goya joan zen gurasoei abisatzera etxeak lapurtzen ari zirela. Gurasoak Andoainera itzuli ziren, beraien ondasunak babestera. Handik gutxira, soldadu batzuk etorri ziren etxera gurasoen bila, baina ordurako irtenak ziren haiek; ordutik gordeta ibili behar izan zuten soldaduek harrapa ez zitzaten. Gerran Andoainen hil zituzten gizonek ez zuten inongo errurik.

**10. Soldaduengandik babesteko egindakoak**

- **Erref:** AND-076/019
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:36:08. **Bukatu:** 00:37:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ihes egin beharra](#)

**Laburpena:**

Gerra garaian, Urnietan gelditu ziren osaba baten etxean. Arreba eta Migel orbel azpian gorde ziren soldaduak etxera etorri zirenean. Baserri hartan hiru bizitza zeuden, eta barrutik zuloak egin zituzten batetik bestera pasatzeko.

**11. Laborden hasi eta igeltsero sartu geroago**

- **Erref:** AND-076/020
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:37:39. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- [Lanbideak](#) » [Arotzak](#)
- [Ekonomia eta industria](#) » [Lantegiak](#)
- [Ekonomia eta industria](#) » [Lan-baldintzak](#)

**Laburpena:**

14 urte zituela hasi zen Laborden lanean, egunean 3.5 pezeta irabazten zituela; handik 3 urtera, ordea, 19.30 pezeta irabazten zituen egunero. 20 urte

zituela utzi egin zuen Labordeko lana eta aitarekin hasi zen igeltsero. Hasiera hartan, oinarrizko tresnak bakarrik zeuzkaten lanerako, baina denborarekin makineria hobetzen joan ziren.

---

**Irazusta Larrea, Migel** | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-20

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com